

Gogoan hartu damutu baino lehen

#E2K
BROKERNET

Red Nacional de Corredores de Seguros

Zure artekariak beti emango dizu informazioa... Ez bazaude seguru, bila gaitzazu

Hileroko buletina
Nº 79 / Iraila 2019

Maizter perfektua



Etxebizitza gehienak jabetzakoak badira ere, alokairuak gero eta pisu handiagoa dauka. Joera-aldaketa hori arrazoi askori zor zaio: espainiarren egoera sozioekonomikoari, ohiko etxebizitzan inbertitzeagatik ematen ziren kenkariak kendu izanari eta etxebizitzak eta lokalak erosteko hipotekak eta maileguak emateko ezarri diren baldintza zorrotzei, besteak beste.

Laneko segurtasun-gabeziak ere eragina dauka horretan: epe luzeko kontraturik ezean jendeak ez du etxebizitza bat hain erraz erosten, hipotekaren kuotak ordaintzerik ez izateaz gain, ez dagoelako jakiterik «non bukatuko ote dugun».

Alokairuak geroz eta pisu handiagoa dauka, beraz, eta, horren ondorioz, goraka doaz prezioak; izan ere, eskaintzaren eta eskariaren legeari jarraiki, eskaria zenbat eta handiagoa, orduan eta altuagoak prezioak. Alokairuan bizi direnak hil amaierara nola iritsiko kezkarekin bizi dira, gastuak ordaintzeko estatusunekin eta beren etxebizitza ez galtzeko ahaleginak eginez. Halere, ezusteko ekonomikoren bat izanez gero, ordainketak eten behar ezinbestean: «nahitaezkoak ez direnak» aurrena, «nahitaezkoak» geroago, tartean alokairua. Puska bat fidantzarekin kitatuko da baina, hala ez bada, etxetik «botako» zaituzte.

Alokatzaileak ere bere kezkak ditu: beste etxebizitza bat ordaintzen ari dira agian,

gurasoen herentzia beharbada, edo beren etxebizitza bakarra utzi egin behar izan zuten hiriz aldatzearen ondorioz, edo gauzak ondo zihoazenean bikote batek bi etxebizitza zeuzkan, bakoitzak berea, bietako batean elkarrekin bizitzera joan eta bestea alokatzea erabaki zuten arte, eta azken horren hipoteka, zergak eta mantenua ordaintzen jarraitzen dute. Aparteko diru-sarrerak behar dituzte horri guztiari aurre egiteko. Etxebizitza alokatu nahi dute, alokatu beharra daukate, baina beldur dira gaizki aukeratutako maizter batzuek ez ote dieten etxea txikituko, edo ez ote dioten alokairua ordaintzeari utziko, gastu guztiak berek ordaindu beharko dituztelarik, nahiz eta beren etxea berreskuratu ezin izan.

Maizterrek ekintza bandalikoak egitea edo alokairua ez ordaintzea dira alokatzaileen kezka nagusiak. Konponbidea: alokairu-asegurua. Aseguratutako etxebizitza edo lokalaren gaineko defentsa juridikoa, errenta ez ordaintzeak eragindako gastu eta galera ekonomikoak eta maizterren ekintza bandalikoek eragindako kalte materialak estaltzen ditu.

Etxebizitzaren merkatua konpontzea ez dago gure esku, baina merkatu horrek eragiten dituen kezka nagusietarako konponbideak dauzkagu. Zatoz gure bulego batera eta aholku emango dizugu.

Ezizen iraingarria jarri diote zure ikaskideren bati?

«Bere buruaz beste egin zuen, sare sozial batean jazarpena jasan eta gero. Hamar urteko neska batek talde arrakastatsu bat sortu zuen Facebooken, ikaskide bat umiliatzeko. Mutil bati emandako jipoi grabatu eta argitaratu egin zuten. Klaseko potoloaz barre egitea...». (ciberbullying.com webgune-ko testigantzak)

Zure seme-alabak badoaz eskolara berriro. Ba al dakizu *bullying*-a edo eskola-jazarpena zer den? Ikastetxe baten barruan luzaroan emandako tratatu txar psikologiko, hitzezko, fisiko edo zibernetikoak dira *bullying*-a. Gure seme-alaben % 10ek jasaten dute ikaskide konplize edo ezaxolek eragindako tortura jarraitua.

Ziur zaude hori argitaratu nahi duzula?

Egon adi, zerbait gaizki dabilen seinale seme-alabak eskolara joateko beldur badira, haien emaitzak okertzen hasten badira, gaizki lo egin edo jaten badute, zer gertatzen zaien azaltzen ez badute edo etxera ubelkin edo urratuekin iristen badira.

Instagramerek alerta bat jarri du jazarpenari aurre egiteko. Jazarpena jasaten dutenen % 42k mehatxuak jaso dituzte sare sozial horretan. Udaz geroztik, erabiltzaileei galde-itu egiten zaie benetan mezu iraingarri bat argitaratu nahi ote duten: «zu, maite dituzun pertsona eta gauzeekin harremanetan jartzea da gure eginkizuna».

Arreta handiz jokatu behar dugu denok, *bullying*-a hautemateko. *Bullying*-kasuren bat gertatuz gero, jakinarazi irakasleei. Aseguruen sektorea kezkatuta dabil gai horrekin eta etxe-aseguru batzuk familia osoarentzako asistentzia juridikoa eskaintzen hasi dira, familiaren babes juridikoko aseguruak hain zuzen ere. Osasun-aseguruak ere era horretako asistentzia eskaintzen dute, psikologiako espezialitatearen bidez. Halakorik ez badaukazu, kontsulta iezaguzu. Zure seme-alabei laguntzea daukagu.



«Abuztuko euria, ardoa eta ezta»



«Teilatua bota zuen intxaurrondo handiaren azpian, ardogileek zahatoak garbitzen zituzten, kantari, kate ozen eta astunekin. Handik igarotzen ziren ontzi-aldatzailak, hankak agerian, muztio edo ardo gorri ptxer bizi eta apartsuekin; eta han atzealdean, estalpean, upelgileek kolpe borobil hutsak ematen zituzten, txirbil usaintsu garbian sartuta...».

(Platero eta biok, Juan Ramón Jiménez)
Urtero 12.000 lagun joaten dira Frantziara mahatsa biltzera, sasoiko langile gisa. Espainian mahatsa biltzeko kanpainak hilabete irauten du ia. Lan nekez hori zorrotz araututa dago eta aseguru-etxeen babesa dauka.

Paperak egunean

Kazkabarra egitea, makinak matxuratzea, langileek min hartzea... Erraza da halako gertakariei aurrea hartzea. **Hauek dira nahitaezko aseguruak:**

- Hitzarmen kolektiboan jasotako istripuak eta langileen istripuak estaltzen dituztenak.

- Nekazaritzako makinei dagozkienak. Hala motordun ibilgailuek (traktoreak, esaterako) nola arrasteko nekazaritzako makinek (atoiak, adibidez) aseguratuta egon behar dute beti. Erantzukizun zibila ere nahitaezkoa da, besteri eragindako kalteetarako.

Beste aseguru gomendagarri batzuk:

- Ustiapenaren gaineko erantzukizun zibila (kanpo-erreklamazio eta lapurretarako), erantzukizun zibil patronala (langileekin izandako konponduzinetarako) eta produktuen gainekoa (besteri eragindako kalteetarako).
- Mahatsaren nekazaritzako aseguruak: eguraldi txarra estaltzen du, izotzal-diak, harria eta uholdeak, adibidez. Dena den, garrantzitsua da estaldura hauek kontratatzeke epeak kontuan hartzea, oso laburrak izan ohi dira eta, hain zuzen ere eguraldiarengatik...

Irailak ardo-usain eta -zaporea dakar. Uzta on!

Jainkoa edo adiskide bat auzitara, bostekoa emategatik

Jorgek 76 urte ditu eta Pedrok, 60. Adiskideak dira, AEBetan bizi dira, eta burutik sano daude biak. Hala eta guztiz ere, Jorgek auzitara eraman du Pedro, bostekoa ematean gehiegizko indarra egiteagatik, eta 100.000 dolarreko kalte-ordaina eskatu dio.

Senatari batek, hau ere AEBetako eta burutik sano, Jainkoa eraman zuen auzitara hondamendi ikaragarriak eragiteagatik munduan. Auzi-eskea onartu egin zioten eta, Jainkoak auzira agertzerik ez zeukanez, zenbait erlijio-tako ordezkariak deitu zituzten epaitegira.

Hori guztia surrealista iruditzen zaigu Espainian, baina geroz eta auzi gehiago jartzen ditugu eta inor ez dago salbu bere balkoitik lorontzi bat auto baten gainean erortzeak edota gure seme-alaben, gure maskoten edo geure ekintzek eragindako erantzukizunetik. Horregatik, garrantzitsua da erantzukizun zibileko aseguru bat edukitzea.



Autoko aseguruarekin arazoak izango dituzu baldin eta...

- Alkohola edanda edo drogak hartuta gidatu, eta istripuren bat badaukazu.
- Baimendutakoak baino bidaiari gehiago badaramatzazu.
- Ibilgailuen azterketa tekniko berritu ez baduzu.
- 25 urtetik beherako gidari (esperientziarik gabeko eta deklaratu gabeko) batek gidatzen badu zure autoa.

Aseguruari ez zaio inoiz gezurrik esan behar. Aseguru-etxeak poliza deuseztatzea eta, ondorioz, kalte-ordaina jasotzeko eskubidea galtzea ekar lezake horrek eta, iruzurra Zigor Kodean jasotako delitu bat bada, espetxe-zigorra jasotzea dago.



Anekdotak

Ikerketa